

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Administrazio publikoak eta udalak bezero garrantzitsuak dira, diru publikoa erabili ahal dutelako gure produktua ordaintzeko. Horrelako proiektuek herritarren bizitza hobetzen dute, eta udalentsat garrantzitsua da hori. Gainera, herritarren konfiantza irabazten dute.

Gure bezeroen atal nagusia Sektore publikoa izango da; hala nola, gobernua, erakundeak eta GKEak. Gure proiektua Espainian martxan jarriko denez, Espainiako gobernuak, eta gobernu autonomikoak Eusko jaularitza eta Generalitat de Catalunya bezalakoak parte hartuko dute. Era berean, gure proiektuan parte hartu ahal duten erakunduek Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa da, etxebizitza eta hirigintza arduraduna. Eta Babes Zibila, hondamendi naturalen aurrean erantzuna koordinatzen duen erakunde publikoa dela. Parte hartu ahal duten GKEa Espainiako Gurutze Gorria izan ahal da, larrialdietan erakunde publiko laguntzaile gisa ere jarduten duelako.

Gure bezero pribatu nagusiak izango dira hondamendi naturalen ondorengo jardueretan parte hartzen duten eraikuntza-enpresak eta etxe propioa eraiki nahi duten pertsona indibidualak ere, modu azkar, merke eta jasangarrian egin nahi dutenak. Bizilagun pribatu horietara iristeko, publizitate kanpainak egiten ditugu

Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak, eta etxebizitza bat merkatuko prezioan erosi ezin dutenak, gure produktua eskuratu ahal dute etxebizitza askoz merkeagoak eraikitzeke, gure produktuak eraikuntza-prozesua sinplifikatzen eta kostuak murrizten dituelako.

Hari berean, pertsona guztiek ezin dutenez partikulari beraien etxe propioa eraiki. Material ekologikoak eta kostu txikiak bilatzen dituzten eraikuntza-enpresek ere gure bezero izan daitezke. Aterpolis enpresaren piezak erabiliz, etxebizitza jasangarri eta merkeak eraiki dezakete, gero merkatuan saltzeko.

GKEak dira gure bezero potentzial nagusietako bat dira. Erakunde hauek zuzenean lan egiten dute hondamendi natural eta krisi humanitarioek, hala nola uholdeek edo lurrikarek, kaltetutako eremuetan. Haien helburua etxea galdu duten edo egoera ahulean dauden pertsonen laguntza azkarra ematea da.

Gure produktua bezero-talde txiki eta espezifiko bati zuzendutako zerbitzua da, eta irtenbide masiboek ondo estaltzen ez dituzten behar bereziak dituzte. Merkatu txikiak dira, baina espezializazio eta balio handiak dituztenak. Hori dela eta, gure produktua nitxoaren segmentazio bat da.

Gure produktua katastrofe naturaletarako edo arrisku-egoeretarako erabil daitekeenez, produktu hau baliabide gutxi dituzten edo hondamendi natural baten ondoren etxerik ez duten familiei edo komunitateei nagusiki zuzenduta dago. Hori dela eta, Lurrikara, uholde, urakan edo sute bat bizitzen duten pertsonentzat zuzenduta dago, milaka pertsonak beren etxeak gal ditzakete une batetik bestera. Larrialdi egoera hauetan, funtsezkoa da aldi baterako aterpeak izatea, azkar muntatu daitezkeenak eta eguraldiaren zein segurtasun faltaren aurrean babesa eskaintzen dutenak. Aterpe horiek arinak izan behar dute, erraz garraiatzeko modukoak, sendoak eta lur mota desberdinetara egokitzeke gaiak. Haien helburua da espazio seguru bat eskaintzea familiek beren burua berreskuratu eta etxeak

berreraikitzen dituzten bitartean, arriskuan edo eguraldi txarraren eraginpean gera ez daitezten.

Lehenik eta behin, gure produktua muturreko pobrezian dauden edo lo egiteko lekurik ez duten pertsonen zuzenduta dago. Egoera horiek gerren kontzientziari edo egoera ekonomiko txarrei eman dakizkieke.

Barne-errefuxiatuek eta -lekualdatuek ere produktua behar lukete. Gatazka armatuek, indarkeriak, jazarpen politiko, etniko, erlijiosoak edo hondamendi humanitarioek bultzatuta beren etxeak utzi behar izan dituzten pertsonen osatzen dute segmentu hori. Beren herrialdean bertan egon daitezke (barne-desplazatuak) edo mugak zeharkatu ditzakete (errefuxiatuak). Pertsona horiek beren etxeak, ondasunak eta inguru guztia atzean utzita egin dute ihes. Berehalako eta duintasunezko bizileku-irtenbidea behar dute, aldi baterako bada ere. Horregatik, gure adreilu eta lauza sistemari esker, aterpetxe azkar, seguru eta berrerabilgarriak eraiki daitezke lekuz aldatutako pertsonentzat.

Azkenik, langile migratzaileen edo aldi baterakoen sektorea oso segmentu bateragarria da gure produktuarekin, langile horiek kontratatzen dituzten enpresek edo kontratistek errotazio oso handia baitute, beraz, etengabe behar izaten dituzte aldi baterako egiturak instalatzeko.